

Telebistan

- Kaixo, zer moduz? Ongi etorri. Nola duzu izena?
 - Kaixo. Aurea naiz, Aurea Garin.
 - Zenbat urte dituzu?
 - Hogeita bost urte ditut.
 - Nongoa zara?
 - Urdulizekoa naiz.
 - Primeran. Zein da zure lanbidea?
 - Suhiltzailea naiz.
 - Zein da zure telefono-zenbakia?
 - 768526952.
 - Eta zein da zure helbide elektronikoa?
 - suua@ni.eus
 - Mila esker. Tori txartela!
-

- Arratsalde on! Ongi etorri!
- Arratsalde on, bai.
- Zein da zure izena?
- Nire izena Oskar da, Oskar Gaubeka.
- Zenbat urte dituzu?
- 24 urte ditut.
- Nongoa zara, Oskar?
- Sestaokoa naiz.
- Ados. Zer lanbide duzu?
- Dendaria naiz.
- Zein da zure telefono-zenbakia?
- 925698789
- Eta zein da zure helbide elektronikoa?
- oskar@ni.eus
- Ondo da. Eskerrik asko. Aurrera!